

19. istorioa

Arene, 18 urte

Psikologoak 5 lerro idazteko agindu dit gaurko saioan, “gaixotasuna deskribatzen lagunduko dizutenak”, dio berak.

Neure burua ispiluan ikusi eta ez dut gustuko ikusten dudana. Zer ez dudan gustuko? Hankartea, ipurdia, masailak, paparra...

34 arropa-neurria erabiltzen dut, gelako gehienek bezalaxe. Gaixo al nago gutxi jan nahi dudalako? Edo gaixoak mugitu ezin daitezkeen gizenak dira? Arazoa ez naiz ni, arazoa nire gurasoak dute anorexia dudala uste dutelako. Ni ez nago gaixo, nik kontrolatzen dut!

22. istorioa

Maite, 18 urte

Jon eta biok uda elkarrekin pasatzen ari gara. Denbora asko daramat lagunekin egon gabe, eta asteburuan, Maritxu Kajoiria doazela aprobeztatuta, elegante jantzi eta koadrilarekin joan naiz parrandan.

Egun guztia telefonoarekin ibili eta gero, bateria bukatu zait. Autoan lo egin ondoren, gosalduta eta txiri-txiri joan gara bueltan etxera. Telefonoa kargatutakoan, Jonen 5 dei galdu eta whatsapp-eko 10 mezu nituen. Beldurtu egin naute hitzok, eta Jonen jarrerak ere beldurtu egin nau. Udan bizitakoaz pentsatzen jarri, eta konturatu naiz sakelakoari pega-pega bizi izan naizela. Hau al da Jonen nahi zuena? Eta nik, zer nahi dut nik?

20. istorioa

Markel, 22 urte

Larunbat gaua. Neska batekin ligatu dut azkenengo tabernan eta nire autora joan gaitezen proposatu diot.

Hasi gara bero jartzen autoan, eta frakak erantzi nahi izan dizkiot arin-arin.

“Argi zegoen txortan egitera gentozela, ez?”, “Zer nahi zuen, bada, eguraldiaz hitz egitea?”.

Neskak frakak igo eta lasaiago joateko esan dit. “Kaka!”, pentsatu dut, “*moja* bat tokatu zait!”.

Ordu erdiz laztantzen eta musukatzen jarraitu eta gero, bere eskua nire zakilera eraman dut, baina ezetz esan dit. Autoaren atea zabaldu diot, eta ospa egiteko esan diot.

23. istorioa

Ainara, 24 urte

Oporretan Cabo de Gatan geundela, larrugorritan, lagun batek argazkiak atera zizkigun. Argazkiak politak ziren.

Horietako bat bereziki ederra zen. Asko pentsatu barik, ni bakarrik nengoen argazki bat Peruri bidali nion, udako nire lagun bereziari. Ez ginen bikote, baina oheratzeaz aparte, lagun-harremana genuen, edo hori uste nuen nik, behintzat.

Oñatira bueltatu nintzenean, nire argazkia telefonoz telefono eta sare sozialetan zebilen, eta ordurako beranduegi zen olatu hura gelditzeko.

21. istorioa

Maia, 17 urte

Larunbat gaua. Mutil jator batekin ligatu dut azkenengo tabernan eta bere autora joateko proposatu dit. Nahiko mozkortuta nagoenez, ez nekien zer egin; baina, azkenean, joan egin naiz. Nahiko zorabiatuta sentitzen nintzen, eta tipoa berehala saiatu da niri frakak kentzen. Ezetz esan diodanean, tipok jarrera aldatu du: ez zegoen hasieran bezain jator. Autotik atera nahi izan dut, baina ez nekien nola! Handik gutxira, eskua eraman dit zakilera; argi ikusi dut ez nuela han egon nahi.

Azkenean, atea zabaltzeko eskatu diot eta alde egin dut.

24. istorioa

Hegoa, 22 urte

Pasaiako neska gazte bat naiz. 40 arropa-neurria erabiltzen dut. Nahiko arrunta naiz, baina erosketak egitera noanean, ez naiz horrela sentitzen. Modan jartzen diren arropak gero eta zailagoak dira janzteko; fraka gero eta laburragoak, gero eta pitillo estuagoak, takoi gero eta altuagoak eta ipurdia bistan uzten diguten bikini gero eta estuagoak.

Horren famatuak eta mirarizkoak diren dietaren bat egin beharko dut arropa horiek jantzi ahal izateko?

25. istorioa

Sara, 16 urte

Aitak beti kontatu izan dit printzesak ez nituela gustuko. Agian ez naiz oso neska normala.

Kontua da duela gutxi hasi garela gauez ateratzen, eta lagun batzuek mutil-laguna dute dagoeneko. Inbidia diet, baina ni zorrotzagoa naiz, bizitza guztirako maitalea da-eta!

Nik ezin dut irudikatu erromantikoa ez den istoriorik. Hitz goxo eta dedikazioz beteak.

Bakarrik gelditzeko beldurra dut, baina sabelean ez ditut tximeletak sentitu oraindik, Cupidoren geziaren arrastorik ez!

26. istorioa

Miren, 35 urte

Badira 8 urte Bakion Oierrekin bizitzen jarri nintzela. Biok etxetik kanpo lan egiten dugu eta, egia esan, etxeko lanekin hala moduz moldatzen gara: astean zehar laneko erritmoarekin ezin edo gogo askorik ez dugu izaten eta astebururako uzten ditugu. Puff! Asteburuak... Athleticzalea eta zikloturista da gure mutila; beraz, partidua tokatu edo eguraldi txukuna izanez gero, ez du etxeko kontuetarako denbora lar izaten asteburuetan ere. Nahiko nuke nik ere horrelako afizioen bat izan! Azkenean, nik bakarrik egiten ditut etxeko lanik gehienak. Harreman sano eta berdinzalea genuela uste nuen, baina bat-batean zalantza sortu zait.

27. istorioa

Peio, 10 urte

Gaur emakume eta gizonen berdintasunaz hitz egin dugu klasean. Irakasleak esan digu emakumeek egunean batez beste 3 ordu eta erditik gora pasatzen dituztela zaintza-lanetan; gizonek, berriz, ordu eta erditik behera. Alde nabarmena, gero! Nik ez dut uste horrela denik, gure etxean ez, behintzat! Gure kasuan, aitak asko laguntzen dio amari, astean zehar berak ematen digu afaria, ontzi-garbigailua ere bere ardura da, eta aspiradora asteburuetan pasatzea ere bai. Zenbat ordu dira horiek? Amak lan gehiago egiten ditu?

